



# Zuhaitzen herrian

Bakar-bakarrik da Julen. **Aspertua** da.

Julenek munduan gaindi ibili nahi du, zeruan edo itsaso zaba-  
lean, **ortzimugaren** beste aldean. Baina horretako, ibilgailuak  
behar dira. Zoritxarrez, mutiko honek bizikletarik ez du, ez eta  
5 autorik, itsasontzirik edo hegazkinik. Etxean gelditzen da, beraz,  
eta itsuski enoatzen.

Egun batez, ideia bat gogoratu zitzaion. Oihanera joan zen. Luzaz  
ibili zen zuhaitzen artean. Han ziren, adarrak zabal-zabalik, hari-  
tzak eta pagoak. Haizeak hostoak polliki-polliki ibiltzen zizkien.

10 Julenek pago eder zuzen bat hautatu zuen. Enberrari gora iganik  
urtxintxaren gisara, adar gorenean jarri zen, xorien artean, hos-  
tozko habia goxo batean. Hantxe lokartu zen gure mutikoa.

Emeki, eztiki, haurra iratzartu gabe, zuhaitzak bere erroak lurre-  
tik atera zituen. Xorien eta haizearen laguntzarekin, airatu zen.

15 **Handik lekora** xoragarria izan zen zuhaitzak Juleni eginarazi zion  
bidaia.

**Aspertua** : enoatua, gogai-  
tua.

**ortzimuga** : zeruaren eta  
lurraren artean ikusten  
dugun muga edo lerroa.  
Horizontea.


**Handik lekora** : handik ai-  
tzina.

## 1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Zer egin nahi du Julenek?
- Nora joaiten da?
- Zer ikusten du? Non jartzen da?
- Nolako bidaia egiten du gero?


## 2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Zuhaitz marrazki hau kaierean egizu eta hitzak leku egokian kopia.



enborra      fruitua      erroa      hostoa      adarra

- *hostozko habia* edo *zurezko etxea* adibidetzat hartuz, hitz bikoteak egizkizu.



- Lehen lerroari begiratu bestak osa itzazu.

Julen eta xoria airatu dira.

Zaldia eta pottoka zalditegian sartu dira.

Xan eta haren anaia mendira doaz.

Ogia eta erreximenta jan ditut.

Oiloa eta xitoak etxe giblean dira.

*Julen xoriarekin airatu da.*

.....

.....

.....

.....